



UPV/EHUren DOKTOREGO ESKOLAREN JARDUNBIDE EGOKIEN KODEA

I. HELBURUAZ ETA APLIKAZIO EREMUAZ.

Doktoregoko ikasketa ofizialak arautzen dituen urtarrilaren 28ko 99/2011 Errege Dekretuak doktorego eskoletako unibertsitateen sorrera aurreikusten du, doktoregoaren berezko irakaskuntzak eta jarduerak antolatzeko. Testuinguru horretan, 9.8 artikulua dio ezen "Doktorego eskolako kide guztiek konpromisoa sinatu beharko dute eskolaren jardunbide egokien kodea betetzeko."

Era berean, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluaren 2019ko apirilaren 11ko Erabakiak, UPV/EHUren Doktorego Eskolaren Arautegia onartzen duenak, 2. artikuluan ikastegi horren eginkizunak jasotzen ditu, besteak beste, "Doktorego Eskolako kide guztiek bete beharreko jardunbide egokien kodeari lotzea".

Nazioarteko komunitate zientifikoak berak definitu du jardunbide egokien kodeen oinarria, diziplina zientifiko guztiek printzipio etiko batzuk bete behar dituztela kontuan hartuta, ikerkuntza zientifikoaren kalitatea hobetzea, ikertzailearen interes legitimoak babestea eta ikerkuntzaren osotasun arazoak prebenitzea bermatzeko.

Doktorego Eskolaren Jardunbide Egokien Kodea (aurrerantzean, "JE Kodea") tresna osagarria da, eta ez dauden lege arauen ordezkoa. Arau horien helburua da doktorego prestakuntzaren kalitatea bermatzea eta doktorego tesiak egiteko beharrezkoak diren jarduera guztiak zorroztasunez, errespetuz, erantzukizunez eta osotasunez garatzen laguntzea. JE kodearen bidez, DOKe-k elementu egoki bat du, Doktorego Eskola bitarte delarik, doktoregoko ikasleak eta beren prestakuntzaz arduratzen diren ikertzaileak zein beroriekin harremanetan dauden zuzendaritza taldeko eta administrazioko eta zerbitzuetako pertsonak, eta, oro har, UPV/EHU elkarren arteko harremanak bideratzeko.

DOKe-ren JE kodeak Ikertzailearen Europako Gutunean eta ikerkuntza erakunde publikoen jardunbide egokien beste dokumentu batzuetan du oinarri.

JE kode hau aplikatu zaie:

- DOKe-ra ikasle, irakasle eta ikertzaile eta AZPko kide gisa atxikitako pertsonen: doktoregaiak (prestatzen ari diren ikertzaileak ere esaten zaie), masterreko ikasleak, doktorego programetako irakasleak (horien artean daude doktorego tesietako zuzendariak eta tutoreak), masterretako irakasleak, ikertzaile adituak, zuzendaritza taldeak eta administrazio eta zerbitzuetako langileak.
- DOKe-ren esparruan antolatutako prestakuntza, lankidetzak eta/edo praktika jardueretan parte hartzen duten edozein enpresa, institutu, organismo edo erakundetako ikertzaileei eta profesionalei.

Kode hau DOKe-k antolatutako edo haren parte hartzearekin antolatutako beste edozein titulazio, prestakuntza propio, lankidetzak eta jarduera praktikotan edo bestelakoetan parte hartzen duten pertsonen zabalpena da.

II. DOKTOREGO PRESTAKUNTZAN APLIKATU BEHARREKO PRINTZIOPIO ETA ESKAKIZUN OROKORRAK

DOKe-ren egitekoa da gizarteari, oro har, eta euskal gizarteari, bereziki, nazioartean aitortutako doktorego prestakuntzako eskaintza bat ematea, eskariarekiko sentikorra izango dena eta lehiakortasuna, garapen jasangarria eta ingurunearen kohesio soziala areagotzen lagunduko duena, honako hauen bidez:

- Agindutako baliabideak eraginkortasunez eta gardentasunez kudeatzea.
- Kalitatezko prestakuntza eskaintza zabala.
- Pertsonen prestakuntza integrala, bikaintasuna eta diziplinartekotasuna bultzatuz.
- Prestakuntza eskaintza zabaltzea eta enplegarritasuna eta laneratzea sustatzea.
- Nazioartean ospe handia duten unibertsitateekin eta ikerkuntza eta prestakuntza erakundeekin harremanak sustatzea.

Honako hau da DOKe-ren ikuspegia:

- Nazioartean aintzatetsia izatea jakintza transmititzen eta sortzen egindako lorpenengatik, bai eta bere ingurunearen lehiakortasunari, garapen jasangarriari eta kohesio sozialari egindako ekarpenengatik ere.
- Ikastegiko jardueran inplikaturako pertsona guztien gogobetetasuna lortzea, bai eta eragile sozioekonomikoen konpromisoa ere.
- Talentua erakartzeko, tokikoa eta globala uztartzeko eta diziplinartekotasuna eta aniztasuna sustatzeko gai izatea.

Honako hauek DOKe-ren balioak:

- Kalitatea, bikaintasuna eta nazioartekotzea, unibertsitate jardueraren bereizgarri gisa.
- Etika, jarrera globala, banakakotik kolektibora hedatzen dena, eta elkartasuna eta jasangarritasuna lantzeko behar diren baldintzak sortzen dituen, ingurunearekin etengabeko harremana duen erakunde gisa.
- Berrikuntza, etengabeko bilaketan jarduteko jarrera gisa.
- Transferigarritasuna, gure jarduera gizartearen beharretara bideratzeko.
- Pertsonen garapena, inpartzialtasunean, berdintasunean eta tolerantzian oinarrituta.
- Eraginkortasuna eta iraunkortasuna baliabideen erabileran.
- Gardentasuna Doktorego Eskolako jarduera guztietan.

III. IKERKUNTZAREN ETA IKERTZAILEEN PRESTAKUNTZAREN PRINTZIOPIOAK

Doktorego programek antolaketa egitura bat izan behar dute, argi eta garbi definituko dituen zuzendarien, tutoreen eta prestatzen ari diren ikertzaileen arteko eta batzorde akademikoetako kideen arteko erantzukizunak eta komunikazio mekanismoak.

Tutorea eta tesiaren zuzendaria barne hartzen dituzten ikuskatzaileen eta prestatzen ari den ikertzailearen arteko harremanak egituratua eta erregularra izan behar du. Horren barruan sartzen da egutegiak eta helburuak finkatuta izatea,

ikerketa lanen emaitza eta aurkikuntza guztien erregistroak mantentzea, txosten eta mintegien bidez atzeraelikadura sortzea, ikerketaren aurrerapenari aplikatzea eta ikerketaren emaitzak eta/edo produktuak gizarteari aurkeztea.

Ikertzaile adituek gainbegirale, aholkulari, orientatzaile profesional edo komunikatzaile gisa bete behar dituzte beren eginkizunak zientzia gaietan, eta zeregin horiek estandar profesional gorenaren arabera egin behar dituzte.

Ikertzaileen ikuskatzaile eta aholkularien eginkizunari dagokionez, ikertzaile adituek harreman eraikitzaile eta positiboa sortu behar dute prestatzen ari diren ikertzaileekin, jakintzak eraginkortasunez transferitzeko eta etorkizunean beren ikerketa karrerak ondo garatzeko beharrezkoak diren baldintzak ezartzeko.

Doktorego tesiaren tutore edo zuzendari baten ardurapean dauden eta prestakuntzan dauden ikertzaileen guztizko kopuruak egokia behar du izan, eta bateragarria haren betebeharrak eta konpromisoen norainokoarekin.

Etengabeko garapen profesionala lortzearren, ikertzaileak etengabeko hobekuntzara daude behartuta edozein etapa profesionaletan, beren kualifikazioak eta gaitasunak aldi-aldi eguneratuz eta zabalduz. Hobekuntza hori hainbat bitartekoren bidez lor daiteke: prestakuntza arautua, mintegiak, hitzaldiak eta ikaskuntza birtuala, besteak beste.

Ikertzaileek lan praktika seguruak egin behar dituzte, indarrean dagoen legeriarekin bat etorruta. Praktika horietan, osasun eta segurtasun arloan eta istripu informatikoak berreskuratzeko arloan beharrezko neurriak hartu behar dituzte. Era berean, datuen babesari eta konfidentziasunari buruzko lege eskakizunak ezagutu behar dituzte, eta horiek betetzeko beharrezko neurriak hartu.

Askatasunaren eta sormen indibidualaren balioa errespetatuz, beharrezkoa da ikerkuntzaren garapenean jardunbide egokien arau batzuk eskatzea eta onartzea. Arau horiek esplizituki jaso behar dira ikertzaileak bere lana egiten duen erakundearekin eta hori sustatzen duen gizartearekin duen kontratu konpromisoan.

Integritate zientifikoaren printzipioa ikertzaileen eguneroko zereginei aplikatuko zaie, prestakuntzan jardun edo aditua izan:

- (a) Eskabideetan, eskaera orrietan, inprimakietan edo beste edozein administrazio agiritan, manipulaturako originalak erabiltzea saihestuz, edo nahita datu okerretan oinarritutako baieztapenak eginez, prozesu akademikoren batean etekina atera ahal izateko;
- (b) Ikerketaren emaitzak hedatu, ustiatu eta argitaratzean:
 - b.1 Proiektuetatik eratorritako emaitzak argitaratzean, beste ikerketa testuinguru batzuetara transferitzean edo, hala badagokio, merkaturatzean aitortutako estandarrak aplikatuz, jokabide onartezinak saihestuz, hala nola argitalpen bikoiztua, datu egokiak ezabatzea edo datu faltsuak sartzea;
 - b.2 Ikerketa prozesuetan parte hartu duten guztien aintzatespen egokia emanez, bai eta kide dituen erakundearena ere.
- (c) Horiek enplegatzen edo finantzatzen dituzten erakundeei edo zerikusia duten beste erakunde publiko edo pribatu batzuei kontuak ematean, bai eta, arrazoi etikoengatik, gizarte osoari kontuak ematean ere. Funts publikoen bidez finantzaturako ikertzaileak ere zergadunen diruaren erabilera eraginkorraren erantzule dira. Beraz, finantza kudeaketa zuzen, garden eta eraginkorraren

printzipioak bete behar dituzte, eta lankidetzan aritu behar dute ikerkuntzarako baimendutako ikuskaritza ororekin, bai horiek erabiltzen edo finantzatzen dituzten erakundeek abiarazten badituzte, bai etika batzorde batek egiten badu.

- (d) Beren ikerkuntza jarduerak gizarteari oro har zabaltzean, bermatu behar da espezialistek ulertuko dituztela, eta, horrela, jendeak zientzia hobeto ulertuko duela.

IV. ERANTZUKIZUN PROFESIONALA

Honako hauek dira ikertzailearen betebeharrak:

- Komunitate zientifikoak oro har onartzen eta aintzat hartu ohi dituen jarraibide deontologikoak errespetatzea; besteak beste, zorrozatasuna, zintzotasuna eta erantzukizuna.
- Ahal den neurrian, bermatu beharko luke bere lana gizartearentzat garrantzitsua izan dadin.
- Egiletza intelektualaren lehenetsiko du, jabetza intelektualaren edo datuen baterako jabetzaren printzipioa errespetatuz, ikerketa ikuskatzaileekin eta/edo beste ikertzaile batzuekin lankidetzan egiten denean.
- Norberaren eta besteen lanak argi eta garbi identifikatzeko aukera ematen duten aipamen bibliografiko zehatzen bidez besteen ekarpenak hartu behar ditu aintzat, ezinbestean.
- Ikerketaren gardentasuna ziurtatuko du, hau da, jakintza sortzeko prozesuan erabilitako informazioaren eskuragarritasuna eta emaitzen ikusgarritasuna.
- Sortutako jakintza publiko ez-espezialistari zabalduko dio, gizarteari kultura zientifiko gisa egindako ekarpen gisa.
- Esplizituki aipatuko du ikerketa lanaren alderdiren bat eskuordetuta burutu duten pertsonak, horretarako beharrezkoak diren eskumenak dituztela bermatuz.
- Detektatutako iruzur kasuak salatuko ditu eta horiei aurre egin, besteak beste emaitzak fabrikatzea edo faltsutzea eta besteren lanen plagioa.

JE kode honen aplikazio-eremuaren barruan diren langile guztiek honako hauek egin behar dituzte:

- Dagozkion zereginak arduraz, erantzukizunez eta profesionaltasunez egingo ditu bere, DOKe-ren misioa lortzeko, UPV/EHUren Estatutuen eta gainerako arau juridikoen arabera jokatzuz.
- DOKe-ren ondarea, ondasunak, baliabide materialak eta instalazioak zintzo, behar bezala eta kontu handiz erabiliko ditu, bai eta haren eskura dagoen beste edozein baliabide ere.
- DOKe-ren funtzionamendua hobetzen lagunduko du, unibertsitate komunitateko gainerako pertsonekin lankidetzan
- Gainerako pertsonen eskubideak errespetatuko ditu eta duintasunez tratatu.
- Justifikatu gabeko pribilegiozko edozein mesede tratatu edo egoera baztertuko du.
- Esplizituki deklaratu du interes pertsonal, finantzario, profesional, politiko edo legalen konkurrentziatik sortutako edozein interes gatazka, horiek egiten dituzten DOKe-rekin lotutako jardueren inguruan dituzten betebeharrak etiko edo legalekiko balizko interferentzia adierazten badute.

V. AUKERA BERDINTASUNA

DOKe-ko kide guztiek dute aukera berdintasunerako eskubidea, eta ezin da inolako bereizkeriarik egin jaiotzagatik, jatorri etnikoagatik, generoagatik, erlijioagatik, egoera zibilagatik, egoera sozioekonomikoagatik, hizkuntzagatik edo beste edozein faktore pertsonal edo sozialengatik, orientazio politikoa edo sexuala barne.

DOKe-k behar besteko esku hartze egingo du aukera-berdintasun hori bermatzeko, horretarako aurreikusitako unibertsitate zerbitzuetan oinarrituta.

Era berean, DOKe-k hartu beharreko neurriak hartuko ditu bere kideak laneko jazarpenik jasan ez dezaten, tratu onean eta errespetuan oinarritutako lan baldintzak sustatuz eta horren inguruko desbideratzeak detektatzeko eta konpontzeko tresnak ezartzen direla ziurtatuz.

Erreferentziak

1. Ikertzailearen Europako Gutuna. Ikertzaileak kontratatzeko jokabide kodea <http://ec.europa.eu/euraxess/index.cfm/rights/europeanCharter>.
2. Carlos III Unibertsitatearen, Alacanteko Unibertsitatearen, Kantabriako Unibertsitatearen eta Kordobako Unibertsitatearen kode etikoak edo jardunbide egokiak
3. Protokoloa, UPV/EHUko ebaluazio probetan eta lan akademikoetan jokabide makur eta iruzurrezkoak eragozteari eta etika akademikoari buruzkoa <https://www.ehu.es/es/web/estudiosdegrado-graduakoikasketak/akademia-araudiak>.
4. Jabetza Intelektualari buruzko Legea, 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuak (21/2014 Legea da azken aldaketa) eta Europako Parlamentuaren eta Europar Batasuneko Kontseiluaren 2001/29/EE Zuzentarauak (Egile eskubideei eta informazioaren gizarteko antzeko eskubideei buruzkoak) onartua. <https://www.ehu.es/es/web/biblioteca/erabilera-arduratsua-eta-jabego-intelektuala>
5. UPV/EHUren biblioteca: plagioa eta zintzotasun akademikoa: <https://www.ehu.es/es/web/biblioteca/plagioa-eta-onestasan-akademikoa>
6. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako III. plana (2019-2022) <https://www.ehu.es/eu/web/berdintasuna-direccionparalaigualdad/berdintasun-plana-2019-2022>
7. UPV/EHUko Ikerketa eta Irakaskuntzako Etika Batzordeak (CEID/IIEB) ezarritako ikerketa eta irakaskuntzako jardunbide egokiak <https://www.ehu.es/eu/web/ceid/buenas-practicas>
8. Plagioa detektatzeko UPV/EHUko plataforma antiplagio.bib-uni@ehu.es